

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak 13 milioi euroko laguntza-deialdia egingo du, langabeak Lantegi Eskoletan eta PIFESean trebatzeko

Deialdian berrikuntzak sartu dira programa horien kalitatea gehitu eta prestakuntzako espezialitate berriak errazteko; deialdia ostiralean argitaratuko da NAOn

Osteguna, 2019.eko martxoak 21

Eskubide Sozialetako Departamentuak, Nafar Lansareren bitartez, ostiral honetan argitaratuko du NAOn Lantegi Eskolak (EETT) eta Prestakuntza eta Enpleguko Programa Integratuak (PIFES) diruz laguntzeko [deialdi](#) berria.

EETT eta PIFES urtearen bigarren erdialdean hasiko dira abian, eta 2019an eta 2021ean jarraitu ahal izango dira. Enpleguak gehienez 13 milioi euroko finantzaketa jarriko du. Aurrekontua urteko 5 milioi eurokoa izango da 2019an eta 2020an eta 3 milioi eurokoa 2021ean.

NLk laguntzak emateko oinarri berriak proposatu ditu, baliabide horien kalitatea areagotu eta Nafarroako sektore estrategiko giltzarriek aurkezten dituzten prestakuntza-premiei erantzuna ematearren, tartean industria-sektoreak.

Halaber, emateko lehentasunak birformulatu ditu, EETT eta PIFES programazioa langabezia-maila handieneko zonetan errazteko eta gizarteratzeko zailtasun handienak dituzten taldeak artatzeko helburuarekin. Hobekuntza horiek egin dira sustatzaileek, ikasleek eta NLko teknikariek egindako ebaluazioaren ondorioz.

Deialdiaren oinarriak jada argitaratuta daude www.empleo.navarra.es guneko "Laguntzak eta diru-laguntzak" atalean, erakunde onuradunak (toki-erakundeak edo irabazi asmorik gabeko erakundeak) proiektuak prestatzen eta proposamenak eskaera berrietara egokitzen joan daitezten. Deialdia argitaratzen denetik erakundeek hilabeteko epean aurkeztu beharko dute haien eskaintza.

Berrikuntzak

EETT eta PIFES programetan arreta osoa eskaintzen da (orientazioa, prestakuntza eta gizarteratzeko laguntza), eta langabeentzat dira, bereziki gizarteratzeko zailtasun handiak dituzten taldeentzat.

Oinarri berrien arabera, taldeei dagokienean, lehentasuna izango dute Bermatutako Errenta jasotzen duten pertsonak eta NLko orientazio-zerbitzuek bideratutako pertsonak (prestakuntzarik gabeko gazteak edo prestakuntza-ibilbideak osatu beharrean aurkitzen diren pertsonak).

Hautatzerakoan, emakumeen eta gizonen arteko oreka sustatuko da.

Modu horretan, EETTetan (%66 gizonak) eta PIFESetan (%60 emakumeak) dagoen desoreka zuzendu nahi da, prestakuntza espezialitateetatik desbideratzen den gaia (emakume gehiago arreta sozio-sanitarioan, kutxazainetan edo garbiketa-lanetan; edo gizon gehiago igeltserotzan, soldaduran, gidari profesional bezala edo fabrikazio mekanikoan).

NLk **ikasleen artean detektatutako premietara egokitzen ditu programak**: EETT lantegiak 24 hilabetera bitartekoak izan daitezke (egun, 18rainokoak ziren), segimendu luzea eskatzen duten erabiltzaileen profila artatzearen; malgutasun handiagokoak dira erakundeek ikasleen laneratzeak eta ordezkapenak kudeatzeko, moduluak amaitzean; edo aukera ematen dute prestakuntza gehitzeko familia profesionalean prestakuntza espezializatuarekin edota 1. Ziurtagiria mailako ikastaroetan; edo funtsezko gaitasunen gaineko prestakuntza jasotzeko (hizkuntza, matematikak).

PIFES programan, espres modalitatea kendu da; hots, ziurtagiri-prestakuntza ez zuten programa azkarrak edo soilik praktikak. Horrez gain, Enpleguak diru-laguntza jarriko du erakundeek PIFESeko ikasleei eta EETT programazioko orientazio-faseetan emango dizkieten beketarako (eguneko eta pertsonako 9 eta 12 euro artean), eta EETTko ikasleen soldatarako (LGSaren %75 gehi kuotak).

Balorazio-irizpide berrien bitartez (guztira 125 puntu), NLk lehentasuna emango die langabezia-indize handieneko zonetan aurkezten diren proiektuei (30 puntu) eta Nafarroa osoko eskaintza orekatuari (10 puntu).

Era berean, NLk kontuan izango ditu batez ere gizarteratzeko gutxieneko baldintza (%25) gainditzeko konpromisoa hartzen duten programak. 'Talde parte-hartzailearen enplegu-aukerak' atalak 35 puntura bitarteko puntuazioa izango du.

Balorazio-eremu horretan, nabarmentzekoa da NLk lehentasuna emango diola (15 puntu) familia profesionalen prestakuntza-eskaintzari, azterketa eta prospekzioen bitartez behar handiagoak edo enplegu-hobiak detektatu badira (abeltzaintza eta nekazaritza ekologikoa, energia berriztagarriak, merkataritza eta marketinga edo mekanizatua). Aldiz, ez dute puntuaziorik izango, esate baterako, arte grafikoekin edo eraikuntzarekin loturiko familiek. Neurri horren bitartez, NLren asmoa da espezialitateen eskaintza Nafarroako ekoizpen eta zerbitzu ehunaren premietara egokitzea.

Halaber, beste alderdi hauek hartuko dira kontuan: prestakuntzaren kalitatea (prestakuntza espezializatu erantsia, lehentasunezko arlo ekonomikoekin lotua, edo espezializatua); erakundeetan enpleguaren kalitatea bermatze aldera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea eta kalitatezko ziurtagiriak lortzea edo prestakuntza-planak izatea.

Bestalde, baita ere neurriak hartu dira **enpleguaren kalitatea eta zerbitzuen prestazioa hobetzeko prestakuntza-erakundeek**; diru-laguntza gehiago zuzendaritzako, orientazioko eta administrazioko langileak kontratatuzko; era berean, kalitate-planak eta gizonen eta emakumeen arteko adiskidetzea baloratuko dira.

Horrez gain, **administrazioa sinplifikatzeko neurriak** hartu dira. Moduluka prezio itxien ordainketa egingo da, fakturen bitartez justifikatzeko sistema desagertuaz. Prestakuntzarako, NLk ikasle bakoitzeko eta orduko 5,88 eta 8,05 euro artean jarriko ditu, familia profesionalaren eta mailaren arabera; eta Orientazio eta kudeaketa lanetarako, (5.925 euro hilabete bakoitzeko).

Eragina gizarteratzean eta enplegarritasunean

EETT lantegien gizarteratze-indizeak oso altuak dira; hau da, pertsonen %87,35 lanean. Zenbait espezialitatek oso ongi funtzionatzen dute; esate baterako, mendekotasunerako arreta, logistika-biltegia edo soldadura. Baina beste batzuek indize baxuak dituzte; hala nola, eraikuntzarekin eta lorezaintzarekin loturikoek, NLk egindako azterketaren arabera.

Hala ere, txostenaren arabera, ezinbestekoa da espezialitate berriak sartzea, kontratatuzko aukera handiagoak dituztenak eta Nafarroan garatzeko aukera duten sektoreen barnean (S3), eta industria-espezialitate berriak irekitzea, 4.0 industriak 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiria duten profilak beharko

baititu.

Enpresek Lantegi Eskoletako ikasleak kontratatzeko esperientzia ontzat jotzen dute; gainera, ia denek berriro errepikatuko dute esperientzia hori, eta EETTeak Profesionalak Prestatzeko zentro bezala hartzen dituzte.

Profil gehienak gizonetzkoak dira, gehienetan 22 urte ingurukoak dira, hezkuntza-maila baxukoak, ikasketarik gabeak eta ahulkortasun-egoeran aurkitzen direnak.

Ikasleek ere oso positibotzat jotzen dute prestakuntza, eta uste dute ikasitakoa oso baliagarria zaiela enplegua aurkitzerakoan. Halaber, orientazio-lanaren "inpaktua" oso garrantzitsua dela diote ikasleen enplegagarritasunarekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten alderdi guztietan (curriculum egitea, elkarrizketa bat egitea, lan aurreko alderdiak, e.a.).

PIFES programetan, programa amaitu eta handik hiru hilabetera, laneratze-indizea %35,5ekoa da batez beste, baina alde handia dago espezialitateen arabera. Indize onenak dituztenak mendekotasunaren eta osasun-alderdien (%75 eta %67) eta logistikaren ingurukoak dira.

Enpresek nahiz ikasleek, halaber, "oso positibotzat" jotzen dituzte programak. Horietan bi profil ditugu: batetik, prestakuntza-maila eskasa eta gizartetik baztertze-egoeran edo arriskuan aurkitzen diren gizon gazteak; eta, bestetik, adin guztietako emakumeak, baina batez ere 35 urtetik gorakoak, baita ere prestakuntza-maila eskasarekin edo lan-merkatuan eskaera txikia duten prestakuntzekin.

Programei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, [ondorengo esteka](#) kontsulta dezakezu.